


# BEZEROAK

Gure proiektuaren ezaugarri bereizgarriena arropak egiteko dugun ekoizpen prozesuan zein erabilitako materialak ingurumenean inpaktu txikiena izan dezatela da. Nahiz eta merkatu osoarentzat eskainiko diren produktuak izan, gure enpresa bezero talde espezifiko bati zuzenduta dago batez ere.



Segmentu horren ezaugarri nagusia **ingurumenarekin jasagarriak diren ekintzak baloratzen dituzten pertsonak dira** eta jarrera hau nahiko zabaldua dago gaur egun.

Gure salmenta bide nagusia web orriko denda izango da. Bidalketa eremua estatu osora zabaldua egongo den arren batez ere Euskal Herrian inpaktua izango dugu, euskal ekintzak babestuko ditugulako. Beraz irizpide geografikoari dagokionez, online salmentak Euskal Herriko bezeroei egingo zaizkie nagusiki.



Lokala Lamiakon izango dugu, eta han arropa salduko dugunez, bertakoak izango dira aurrez aurreko erosle nagusienak.

Merkatu ikerketa bat egin genuen negozioaren lehen hastapenak definitzen geundenean eta bertan ikusi dugunez, ingurumenarekin ardura duten pertsona gehienak **20 eta 45 urte arteko** jendea dela.

Ikusten da ere familia duten pertsonak ere jarrera arduratsuagoa dutela ingurumenarekiko. Honek etorkizunean ateak irekitzen gaitu, ume txikienez arropa ere ekoiztera. Gure negoziaren hazkundea zabaldu nahi badugu segmentu honetan gure negozioa dibertsifikatzea pentsatuko dugu.

Ekonomiari begira, gure arropa ez da batere garestia izango, hau da, gure arropa nahiko ekonomikoa izango da eta gaur egungo pertsona gehienek gaitasuna izango dute gure arropa erosi ahal izateko.